

On- hartu!

Gipuzkoako Foru Aldundiak, mezenasgorako araudiaren barruan, hainbat tresna fiskal ditu enpresen eta partikularren ekarpenak aktibatzeneko erakundeentzat "lehentasunezko jardueri".

Toolkit hau gida gisa diseinatuta dago, Gipuzkoako Foru Aldundiaren "lehentasunezko jardueri" izateko prozesuan eman beharreko pausoak zeintzuk diren argitzeko. Prozesu horri esker, erakunde emaile bat aurkitzeko aukera emango dizu, zure jarduerari laguntzeko eta dohaintza horri lotutako zerga-kenkariaren onuradun izateko.

Toolkit-a, batez ere, gizarte-, kultura-, ekonomia- edo ingurumen-inkaktu positiboa duten irabazi-asmorik gabeko erakundeetarako zuzenduta dago.

Toolkitak 10 atal ditu (aurkezpen hau barne):

01 Aurkezpena

02 Egin beharreko urratsak

03 Kronograma

04 Aplikazio digitala

05 Eskaera-inprimakia

06 Jardueren memoria

07 Emaileen zerrenda

08 Indarrean dagoen araudia

09 Jardunbide egokiak

10 Ekarpenak lortzea



10 atal hauen bidez prozesua hobeto ulertzeko aukera izango duzu.



Urtero egin beharreko urratsak



Baldintzak betetzea eta erakundea administrazioaren lehentasunezko arloekin lerrokatuta egotea.



Gipuzkoako Foru Aldundiari dagokion sailarekin eta harremanetan jarri.



Eskaera-inprimakia bete.



Justifikazio-memoria garatu.



Eskatutako dokumentu guztiak plataformara igo aplikatiboan.



Erregistro-egiaztagiria inprimatu eta gorde.



Sailaren kontaktuari dokumentazioaren igoeraren berri eman.




Ebazpena baiezkotan edo ezezkotan argitzea.



Ebazpena baiezkota bada, prozesua justifikatu beharko da dohaintza-emaileekin harremana eta kobratu izanaren egiaztagiriak.



Azkenik, formularioak emaileei bidali.



Kontuan hartu beharreko kronograma orientagarria



Uneko urtean:

1

Urtarrilean

Gipuzkoako Foru Aldundiak urteko dekretuaren testua egiten du, zergakenkariaren xede diren lehentasunezko jarduerak zehaztuz.

2

Martxotik maiatzera

Urteko dekretua GAOn argitaratzen da, urte horretarako behin betiko testuarekin.

3

Azarora arte

Dekretuan zehaztutako eskaera egiteko epea.

4

Abendura arte

Eskaera onartzen den edo ez jakinarazteko epea (urtero berritzen da).



Hurrengo urtean:

5


Urtarrila eta otsaila bitartean

Dohaintza-emaielen eta kobrantzen egiaztagirien zerrenda eta informazio-aitorpena Ogasunari dagokion helbidera bidali.

6

Apirilean


Zerga-kenkarietarako ogasun-ziurtagiriak jasotzen dira.




Nola igo dokumentazioa aplikazio digitalera? 1. urratsa

Gipuzkoa Atariaren egoitza elektronikora sartu eta erregistro-prozesua hasi aurretik, lehenik eta behin, saioa hasi behar duzu **Izenpe Card Manager** aplikazioan, txartel kriptografikoa kudeatzeko. Txartel horretan zure ziurtagiri digitala dago, eta, horrekin zure sinadura aktibatu behar duzu.

Horretarako, ireki zure gailuan **Card Manager** aplikazioa, sakatu leihoaren eskuinaldean aurkituko duzun "Saioa hasi" dioen botoia eta sartu zure **PIN gakoa**.




Nola igo dokumentazioa aplikazio digitalera? 2. urratsa



Orain, **Gipuzkoako Foru Aldundiaren** goitza elektronikoren orri nagusian sartu behar duzu (<https://egoitza.gipuzkoa.eus/eu/inicio>).


Sakatu "**Erregistro Elektronikoa**".

Orain sakatu "**Erregistro elektronikora sarrera**".



Baimena duzun pertsona, erakunde edo ordezkaria bazara, zure nortasuna egiaztatu behar duzu **BakQ** edo web orrian eskaintzen diren beste identifikazio-sistemen bidez.


Hautatu hobekien komeni zaizun egiaztapen-metodoa, aplikatu zure ziurtagiri digitala eta sartu sartzeko gakoa.



Nola igo dokumentazioa aplikazio digitalera? 3. urratsa



Erregistro elektronikoaren barruan, egin klik **"Dokumentazioa erregistratu"** aukeran, 4 pauso dituen prozesua hasteko.

Lehenengo urratsa erakunde eskatzailearen **harremanetarako datuei** buruzkoa da, eta helbide elektronikoa, telefona eta helbide osoa eman behar dira Eskabidea erakundearen arduradunak egiten badu, bere sinadura errabiltza, ez da "ordezkaria" aukera markatu behar.



Bigarren urratsean, **saila hautatu** behar da, eta hirugarrenean, eskatutako dokumentuak igo ditzakezu banan-banan: Eskaera, Lehenetsunezko jardueraren memoria eta aurrekontua.

"Gaita" jartzen duen lekuan, eranstean ari zaren artxioboaren izen bera sartu, dela eskabidea, dela memoria, dela aurrekontua.



Azkenik, aplikazioak horrenbeste aldiz eskatzen duen gakoarekin **digitalki sinatu** behar duzu, erregistrora igoztearen egiaztatzea deskargatu ahal izan arte – lehenengo urratsean sartutako e-mailera automatikoki bidaliko den arren –.

Eskaera formularioa

LEHENTASUNEZKO MECENAZGO JARDUEREN ARTEAN SARTZEKO ESKAERA

Entitate eskatzailea:

Helbidea:

IFZ:

Jarduera:

Tfnoa. eta helbide elektronikoa:

Interes orokorreko helburuen eremuan 2023. urterako lehentasunezko mezenasgo-jarduerak deklaratzeko dituen Foru Dekretuari dagokionez, goian aipatutako erakundeak, berak egindako jarduerarako, 2023. urtean lehentasunezko mezenasgo-jardueratzat jotzen direnen artean sartzeko eskatu behar du, aurreikusitako zerga-pizgarriak aplikatzeko aldera.


[Erakundearen izena] "lehentasunezko jarduerari" buruzko [artikulu zenbakia] artikuluekin bat datorren eragilea da, [idatzi "lehentasunezko jarduera" eremua, Foru dekretuaren arabera] eremuan.

Arlo honetan, erakundeak hainbat proiektu garatzen ditu, hala nola... [lehentasunezko jardueren memorian garatzen diren erakundearen proiektuak izendatzea eta labur-labur deskribatzea].

Horretarako, gainera, lehen aipatutako Foru Dekretuan ezarritako betekizunak eta baldintzak betetzen dituela adierazten du.

Donostian, 2023ko azaroaren 16an

Sin.: [Izena eta abizenak]

Jardueren memoria



Eskaera egiten duen erakundearen lehentasunezko zatitako jardueren memoria aurkeztu beharko da.

Jardueren memoria horretan edukien gidoi hau sartzea gomendatzen da:



Sarrera

Erakundearen deskribapen laburra: atal honetan labur-labur deskribatzen da erakundearen historia, kokapena, zuzendaritza-taldea eta forma juridikoa.

Erakundearen xedea eta baloreak: erakundea definitzen duten baloreak laburki deskribatzea. Zer ezaugarri dituen, zein den erakundearen egitekoa edo izateko arrazoia.

Lehentasunezko ildoak eta jarduerak

Lehentasunezko jarduerekin lotutako gaiak eta negozio-ildoak.

Dagokion urtean garatutako lehentasunezko jarduerak.

Genero-ikuspegia eta hizkuntza-politika

Genero-ikuspegia: gizonen eta emakumeen beharrek eta jarduerak izan dezaketen eragin bereizita kontuan hartzea eta aurreikustea. Deskribatu:

- Proiektuen barneko eta kanpoko komunikazioetan erabiltzen den hizkuntza.
- Hala badagokio, proiektuaren helburuak, herritarren beharren arabera (emakumeak eta gizonak).
- Helburu espezifiko bereziak planteatu diren.
- Proiektua gauzatzeko lekua edo lekuak kontuan hartu diren. Era berean, jardueren ordutegiak berdinak badira.
- Baliabideak sexuaren arabera esleitzea, hala badagokio.

Hizkuntza-politika: erakundearen barneko eta kanpoko komunikazioetan erabiltzen diren hizkuntzen deskribapen laburra. Komeni da adieraztea zein hizkuntzatan argitaratuko diren online eta off line komunikazioak, eta zein izango den euskararen erabilera, Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizial gisa, eta jarduera bakoitza komunikatzean izango duen lehentasuna.

Emailen zerrenda eta justifikazioa

1. urratsa



Dagokion urteko dekretuak ezartzen duen dataren arabera, otsailaren amaieran normalean, honako dokumentazio hau aurkeztu behar da erregistro bidez dagokion zuzendaritzan:

1. Jasotako ekarpenen zerrenda, honako hauekin:

- Izen-abizenak edo elkartearen izena.
- Zerga-zuzendaritza.
- NAN edo IFK.
- Ekarpenaren zenbatekoa.

2. Fakturen zerrenda eta kobrantzaren bankuko egiaztatzea. Fakturarik ez badago, kobrantzaren egiaztatzea bakarrik. Gainera, Ogasunari egindako informazio-aitorpen bat betetzen da, **182 ereduaren** arabera.



2. urratsa

Gutxi gorabehera 2 hilabete igaro ondoren — normalean apirilaren amaieran —, erakundeak dagokion zuzendaritzatik (kirolak, ekonomia...) ziurtagiriak jasoko ditu, pertsona fisikoek edo enpresek Sozietateen gaineko Zergan edo PFEZn kenkaria aurkez dezaten.



3. urratsa

Horrela, erakundeak emaile, enpresa edo partikular bakoitzari bidaliko dio aipatutako kenkaria egiteko ziurtagiria.

Indarrean dagoen araudia

Arauk eta dekretuak

Gipuzkoa erreferentziarako lurralde aurreratua da mezenasgorako araudiari dagokionez, eta hainbat tresna fiskal ditu lehentasunezkoztat jotzen diren jardueri enpresen eta partikularren ekarpenak aktibatzen. Tresna horien artean, honako hauek nabarmentzen dira bereziki:

3/2004 Foru Araua, apirilaren 7koa, irabazi-asmorik gabeko erakundeen zerga-araubideari eta mezenasgoaren zerga-pizgarriei buruzkoa.

Gainera, 2004. urtean bertan argitaratu zen lehenengo FA: **87/2004 Foru Dekretua**, azaroaren 2koa, araubide fiskal hori aplikatzeko erregelamendua onartu zuena. Oinarrizko arau hori aldatu dute hainbat xedapenek, eta zenbait puntu aldatu dituzte.

Aldaketa horietatik, gizarte-interesekoztat jotako kultura-proiektuetara zuzenduriko Kultur Mezenasgoaren **2/2019 Foru Araua** nabarmentzen da. Izan ere, honek bi puntu handitzen du kenkaria sozietateen gaineko zergan, % 20raino.

Urtero, zerga-kenkari horiek aplikatzeko baldintzak zehazten dituen dekretu bat argitaratzen da; alde batetik, irabazi-asmorik gabeko erakundea izatea, eta, bestetik, lurraldearentzat lehentasunezkoztat jotzen diren jardueretako batean edo batzuetan aritzea.

Azken eguneratzean, **2023ko dekretuak lehentasunezko jardueratzat** jotzen ditu hurrengo orrian aurkituko dituzunak.



Lehentasunezko jarduerak 2023

Gipuzkoako Lurralde Historikoan egiten diren proiektuak eta jarduerak, honako helburu hau ek dituztenak:

Lehentasunezko jarduerak gizarte politiken esparruan

- a) Desgaitasuna duten edo bazterketa arriskuan dauden pertsonen lan eta gizarte arloan gizartera tzea.
- b) Mendekotasun egoeran dauden pertsonen, desgaitasuna dutenei eta gizarte bazterketa egoeran edo arriskuan edo babesgabezia egoeran dauden pertsonen zuzendutako zaiketen eta lagun tzen formula desberdinak lantzea.
- c) Komunitatearen erantzukizuna eskatzea gizarte arloko behar berriei erantzun ahal izateko.
- d) Gizarte zerbitzuen, arlo sozio-sanitarioaren eta zaintzaren tokiko ekosistemen arloko gaiei buruzko ikerkuntza eta berrikuntza.

Ingurumenaren arloko lehentasunezko jarduerak

Programak edo jarduerak, elikagaiak alferrik galtzea edo xahutzea lehengoratzeko eta horrela hondakinak prebenitzen eta murrizten laguntzeko.

Lehentasunezko jarduerak kirolaren esparruan

- a) Gipuzkoako Foru Aldundiak 2021-2022 eta 2022-2023 ikasturteetarako onartzen dituen eskola kiroleko jarduerak programetan ezarritako beharkizunak eta baldintzak bete tzen dituzten kirol jarduerak.
- b) Gipuzkoako kirol elkarte, selekzio eta kirolariak kirol txapelketetan parte hartzea, betiere beharkizun batzuk betetzen badira dagokion dekretuan zehazten dira.

Lehentasunezko jarduerak kulturaren esparruan

- a) Kulturaren esparruan lehentasunezko hartzen da nazioarteko kultur proiektuen prestaketa.
- b) Lurraldeko arte eszenikoen konpainiek sustatutako kultura zabaltzeko proiektuak, haurrei eta gazteei zuzendutakoak.

Beste kultura-jarduerak batzuetarako, 2/2019 Foru Araua dago, kultura-mezenasgorako pizgarri fiskalekin.

Lehentasunezko jarduerak nazioartekolan kideztaren esparruan

- a) Giza eskubideak defenda tzea.
- b) Maila ekonomiko, sozial edo politikoan genero berdintasuna defendatu eta sustatzea.
- c) Ingurumenaren eta bizitzeko eraren jasangarritasuna defendatzea, baliabideen erabilera arrazionalarekin eta etorkizuneko belaunaldien bizitzarekin bateragarriak izan daitezen.

Lehentasunezko jarduerak euskararen esparruan

- a) Euskararen erabilera soziala sustatzeko programa eta jarduerak.
- b) Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiliaz, edukiak euskaraz hedatzeko proiektuak.
- c) Herri edo eskualde mailako euskarazko hedabideak.

d) Euskararen erabilera arlo sozioekonomikoan sustatzeko jarduerak eta ekintzak.

e) Euskarazko ahozko ondarea berreskuratu, babestu eta hedatzeko jarduerak.

Lehentasunezko jarduerak sustapen ekonomikoaren eta berrikuntzaren esparruan

a) Arlo hauetan ikerketa eta esperimendazio lana garatzen edo ahalbidetzen duten jarduerak: nanozientziak, nanoteknologiak, mikroteknologiak, fabrikazio aurreratuko ikerketa jarduerak, adimen artifiziala, genomika eta proteomika, bioteknologia, neurozientziak, arlo biosanitarioa, energia berriztagarriak, erregaipilak, zibersegurtasuna, per tso nen zahar tzea, elektromugikortasuna eta gastronomiaren digitalizazioa. Era berean, lehentasunezko joko dira zientzia munduaren ardura eremuetan emakumeen presentzia balorizatu eta bultzatzea helburu duten jarduerak, zeregin hori bete tzen denean neskatoak eta gazteak mundu zientifikora hurbiltzen lagunduko duten ekimenak garatuz, edo emakumeak buru dituzten ikerketa taldeei zuzendutako beka, coaching edo laguntza programak bultzatuz.

b) Enpresa ekintzailetzaren kultura eta nazioarteko enpresa lankidetzaren sustatzeko programak eta jarduerak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko irabazi asmorik gabeko entitate pribatuek edo Gipuzkoako lurraldearen garapen ekonomikoan sustatzen duten zuzenbide publikoko korporazioek eginak direnean.

c) Bizitza osoko ikaskuntza sustatzeko jarduerak, hasierako prestakun tza arautua (hezkuntza agintari eskudunek finantza tua), okupazionala eta jarraitua integratzen duten entitateek garatzen dutenean.

d) Euskal Herriko Uniber tsi tatearen «Zientziaren, Teknologiararen eta Berrikuntzaren astea».

e) «Ekonomia zirkularra»ren estrategian bildutako ekimenak, esparru hauetako bat har tzen dutenean: Diseinu ekologikoa, Ekonomia funtzionala, Berrerabilpena, Konponketa, Birfabrikazioa, Birziklapena, Ekologia industrialia.

f) Gipuzkoan terapia aurreratuek eta konputazio kuantikoa azkarrago ezartzea helburu duten jarduerak.

g) Inbertsio-industriaren kultura sustatzeko jarduerak, tokiko enpresa-sarea garatzeko palanka gisa, hezkuntza eta ikerketa-jarduerak garatuz eta/edo babestuz, bai eta ezagutza zabalduz ere, hitzaldi, mintegi eta argitalpenen bidez.

Lehentasunezko jarduerak suteen prebentzio esparruan

Suteen prebentzio esparruan lehentasunezko hartzen dira Gipuzkoako Lurralde Historikoan suteen aurkako lanaren arloan trebatzea eta prestatzea xede duten irabazi asmorik gabeko entitate pribatuek garatutako jarduerak eta programak.

Jardunbide egokiak



1. Prozesuan hizketakide izango den Gipuzkoako Foru Aldundian dagokion sailarekin edo zuzendaritzarekin harremanetan jartzea. Komeni da dekretua urte hasieran atera baino lehen egitea, dekretua alda badaiteke ere.



2. Erakunde eskatzailean prozesuaren arduradun bat izatea, kontuan hartu beharreko urrats asko baitira, koordinatuta egon behar dutenak. Pertsona horrek egutegiaren zain egon behar du, prozesu osoa egiteko eta bidezko kontaktuak egiteko.



3. Foru Aldundiarekin harremanetan jarrita, ematen diren urrats guztiak berretsi: eskaera egiteko asmoa, eskaera aplikaziora igo izana eta ebazpenaren jarraipena.



4. Eskabidearen, memoriaren eta abarren egiaztatgiri ofizial guztiak gorde, edozein gorabehera gertatuz gero dokumentazioa edukitzeko.



5. Zaindu harremana bai Gipuzkoako Foru Aldundiarekin, bai emaile/ babesleekin. Kontuan izan izen-emate hau urtero berritu behar duzula.



Ekarpinak lortzeko

Dohaintza emaileak erakartzeko, interesgarria izan daiteke ondorengo puntuak jasotzen dituen proposamen bat diseinatzea:

1. Nor garen

Historia, ibilbidea eta ekonomia.

2. Zergatik egin diru ekarpena?

- Enpresa emailearen eta erakunde hartzailearen artean partekatzen diren balioengatik.
- Enpresaren eta bertako langileen erantzukizun sozial korporatiboagatik.
- Lurraldearentzat garrantzitsua den lehentasunezko jardueragatik, dirua nora bideratuko litzatekeen zehaztuta.
- Ikusgarritasuna eta enpresa-irudiagatik, erakunde hartzaileak gizartean eta ingurumenean duen eragina zehaztuz.

3. Zertarako eman dirua?

Dohaintzekin lortu nahi diren ekonomia-, gizarte- eta ingurumen-erronka nagusiak. Diru ekarpena zein jardueretan erabiliko den eta nola zehaztu.

4. Nola eta zenbat eman?

Hainbat aukera definitu, zenbateko eta itzulera desberdinekin, hauen arabera:

- Dohaintzaren ikusgarritasuna: proposamenarekin lotutako komunikazio-plana. Webgunea, Sare sozialak, bestelako komunikazio-ekintzak.
- Jarduerari esker enpresako langileek, familiak edo bezeroek izan ditzaketen irabaziak edo onurak.
- Beste irabazi edo onura zehatz batzuk, enpresako langile, senide edo bezeroentzat.
- Azkenik, dohaintza emaileak aplika ditzakeen zerga-onurak zehaztea komeni da. Kontratuaren zenbateko garbiaren % 18 sozietateen gaineko zergatik ordaindu beharreko kuotatik kenduko da, kuotaren % 40ko mugarekin, beste onura fiskal batzuei gehituz gero. Gainera, sinatzen den zenbateko garbia % 100ean kenduko da gastu gisa.

